

Unai Iturriaga eta Jon Maiagaz bertso bazkaria egongo da Diman bagilaren 1ean

13. orrialdea

Julen Zuberok etaparik gogorrena irabazi eban Titan Desert proban

Titan Desert txirindularitza probaren 3. etapa irabazi eta laugarren egin eban sailkapen orokorrean Julen Zuberok lemoztarrak. Marokoko proba gogor honetan etapa bat irabazten dauan lehen euskalduna izan da Zuberok. Mendi Bizikletako Bizkaiko Txapelketan, ostera, hirugarren egin eban arratiarrak. 10. orrialdea



Udan Uitzira Zaztaparrakaz joateko izena emoteko epea zabalik dago

12. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

186

2013ko maiatzaren 16a
hamabostekaria
www.begitu.org

Axpe Goikoa jatetxea hasi da jaten emoten

Sute handi batek hartu eban Axpe Goikoa maiatzaren 5ean, 200 bat lagun bazkaltzen egozan bitartean. Ez zan zauriturik izan baina kalte handiak izan zituan jatetxeak: teilatua eta goiko pisua guztiz erre ziran.

Hondakinak kentzeako lanak hasi dira eta konponketa lanak abuztura arte luzatuko dira. Tarte horretan jaten emon ahal izateko karpa bat ipini dabe kanpoan.

Karpapeko lehenengo bazkaria 10ean izan zan, erre eta bost egunera. Jenteak ondo erantzun dauala dino Iñaki Aldape arduradunak. 5. orrialdea



Axpe Goikoa jatetxearen kanpokaldean jaten emon ahal izateko karpapeko ipini dabe.

LEMOA

Bilduk irregulartasunak salatu ditu aurreko legegintzaldiko gestinoan

Bilduk, EAJ-PNVk Lemoako Udalean 2007 eta 2011 urteen artean egindako hainbat irregulartasun jakitera emon zituan Liburu Beltza aldizkarian. Horren ondorioz Jabier Beobide Lemoako alkate ohiak alderdikide karneta entregau eutsan EAJ-PNVri. Bizkai Buru Batzarreko Itxaso Atutxak, ez eukiela Lemoako Udalak bere aurrekontuan protokolorako ezartzen zituan partiden barri adierazo eban. 5. orrialdea

BEDIA

Alfus enpresakoak mobilizazioetan

Hamasei beharginen kaleratzea eta lan-baldintzak okertzea ebitetako, mobilizazioetan dira Bediako langileak. Aprilaren 29az geroztik greba mugabakoan dagoz eta maiatzaren 14an, enpresa batzordeko lagun bik itxialdia egin eben, enpreseari negoziatan hasteko eskatzeko.

Lantokia hesitu eta egunean 24 orduz armatutako segurtasuneko kideak ipini dituala enpresek salatu dabe beharginak.

7. orrialdea

ARRATIA

Lanbide zaharrak berbiztuten

Egoera ekonomikoa dala eta, gauza barriak erosi beharrean konpontzen hasi da jentea. Hori gertatu da zapatakaz, barbarako. Antxinako gauza baliotsuak, barriz, beti konpondu izan dira eta horixe gertatzen da eleizako organoakaz be, euren balioagaitik ezin diralako ordezkatu. Alejandro Turanzas Arteako organoa konpontzen dabil. Maisu organo-egilea da eta lan honetarako arkitektura ezagupenak, fisikakoak, diseinukoak eta musikakoak behar dira.

Edurene Soloetak, barriz, zapatak konpontzen ditu. Sasoi baten bost zapatari konpontzaile egozan Igorren eta danak desagertu ziran, Soloetak hutsune hori bete arte. 8. eta 9. orrialdeak

oilaskoak
pizzak
razioak...

usansolo
Ander Deuna 17
Tlf: 944028575



laster zabalik?

IGTIE

JATEN DOGUNA GARA

Gozo eta osasuntsu jan gura dogu. Txiki-txikitat eskolan, gero lantegiko janlekuan eta gure zaharren mahaietan be bertako elikagaiak gura doguz. Jaten doguna gara. Dieta orekatuaz bizi gura dogu, gozo eta gazi, ikusiz eta ikasiz. Plazerra eta eskubideak aldarrikatzen doguz. Nok bihurtu eban jatea pribilejio? Legeak, bai, legeak. Legeak egiten dituenak tranpa guztiak dakiez. Adibide bat, esate baterako:

- Eskola-janlekuetako kasua. Lehenengotik, sukalde guztiak (gehienak) kendu egin euskuzan. Hau, eta hori, eta bestea esan euskuen. Gero, hiru-lau ka-

tering enpresa handi sortu zituen. Enpresari handiak dira, sen berezi bat daukie. Eta legeen laguntza be izan dabe, jakina! Enpresa honeek lege-arau guztiak beteten ditue. Bat: egunero 6.000 (sei mila!) menu baino gehiago zerbitzatzeko derrigortasuna. Bi: urte biko esperientzia bermatzea. Hiru: golkoa bete diru. Eta abar, eta abar. Eta txikiak? Non geratzen da txikien elikatze eskubidea?

- Lege-dekretu hori aldatu egin behar da, baldintza-agiri hori aldatu egin behar da, edo ez da baliogarria izango. Hiru-lau negozio handi mantenduteko bai, horretarako balioko dau, bai. Gainera, inok kontrakoa esan orduko, eredu txikiak lanpostu gehiago sortzean ditu, eta burujabetasuna bermatzen dau. Erreztasunak

gura doguz elikadura-subirauak izateko.

- Urduñako lagunak herrigintzan egin daben lana ez da behar bada nahikoa aitatzten, baina merezidu dau ekimen hori ezagutzea. Maila instituzionalean proposamen zehatzak eta interesgarriak egin ditue, gobernetan gaituen legeen praktikotasuna eguneratzeko eta demokratizetako bidean.

- Eta Larrabetzuko eskolak be, eta herriak orokorrean, ausardiaz jokatu dau. Guraso-alkarteak euren seme-alaben heziketearen ardura klaseetatik apur bat atera eta mahaira erotea ebatzi eben orain dala 3 urte. Orain, Jaurilartzaren boikota eta erasoan gaintetik aurrera egiten ikasten dabiz, egunegun. Diruaren balioaz eta osasunaren balioaz hausnarketa ausarta.

Bai lagunak, elikadura-subirau-tza gure oinarriko eskubideak berreskuratzeko bidean pausu garrantzitsua da. Pausu garrantzitsuak adore indartsua behar dabe, ausardia, pazientzia eta iraunkortasuna. Gatza eta piperra, gozotasun pitin bategaz finean. Indarrak batu eta

burrukan egiteko garaia da. Utopia berba inportantea da.

* Posdata: ez geunke burrukea beti sufriduteagaz lotu behar, udabarriko egun eder batez disfrutetea be pozik biziteko daukagun gure eskubidea burrukatzea da eta.



TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara
Maiatzaren 13tik 19ra

Kortazar. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.

Maiatzaren 20tik 26ra

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Maiatzaren 27tik bagilaren 2ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Chicote. Kareaga Goikoa 50. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengoa 22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45eko.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriagatik): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

www.begitu.org

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Kudeatzailea: Inigo Iruarrizaga.

Erredakzino taldea: Clara Luja Azpiri eta Irati Urien.

Maketazinoa: Inigo Iruarrizaga.

Publizidatea: Inigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Alaia Ozerinjauregi eta Iratze Sagarna (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.600 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Babesleak:



Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceministerio de Política Lingüística



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



bbk

ZEURE BERBEA

Batz sortu zaneko arrazoi eta gogorapen batzuk

Lehenengo eta behin, kontuan izan behar dogu 1963 urtean zein zan Igorre eta Arratia inguruko egoera sozioekonomikoa.

Ordurako, nekazaritza eta abeltzaintza arlotik bakarrik bizitetik, industria mundura bihurtuta egoan gehiengo.

Igorren eta Arratia osoan, zerratoki batzuk bakarrik egozan, harrobiren bat eta Lemoan Cementos Lemona portlangintza. Garraio bakarra, Arratiako tranbia zan eta bera, nahiz eta 1964 urtean desagertu guztiz, ibilbide batzuk desagertuta egozan ordurako. Egoera haretan, exodo baten antzera, jentea lantokiak egozan herrietara bizitzen joan zan, Bilbora, Bidebieta, Galdakaora, Zornotzara, Durango, Eibarrera eta abar.

Bazan mutil bat, Bilbotarra zana bera, umetatik Igorrera etorten zana San Kristobal auzuneko Errotabarri baserrira. Mutil hau, Joseba Azpeitia zan izenez eta "Gabaseme" lez ezaguna. Abertzaletasuna eta idealismoa ziran bere ezaugarriak eta egoera haren aurrean, zeozer egin

behar genduala uste eban.

Gogo edo asmo hori, apurka apurka eta lehenengotan banaka zabaltzen joan zan bere lagun urkoen artean. Hogetahiru urtetik hogetazazpi urtera bitartekoak ginnan gitxi gora behera. Nire kasuan, gogoratzen naz gauetan etxerantzean orduak emoten genduzala gai honeri buruz berbaz, baserrietako bide kurtzeroetan.

Buruan genduan asmo hori aurrera eroateko, argi geunkan kooperatibea zala bidezkoena. Kooperatiba munda, Arrasaten egoan kokatuta orduan, Arizmendiarieta abadearen eraginez, baita zuztarrak emonda Bizkaiko herri batzuetan be, esate baterako Elorion, Funkor enpresea eta abarregaz.

Kooperatibea osotzeko tramiteak beteten ziran bitartean denpora bat igaro zan eta tailerra, Kepa Etxebarriaren izenean ipini zan. Lehenengo hasikerea, zerra-tokia izandako lokal baten izan zan, eta lokala bera atontzeko lanak geure artean egin genduzan, nahiz eta ofiziokoak izan ez.

Kooperatiba honen izenak eta esanahiak:

Lehenengo Arraba ipini jakon eta gero Batz izenera aldatu zan. Sortzaileok euskaldunak izanik, normala zan euskerazko izena

ipintea, baina ohartu gaitazan izen laburtu honeek esanahi eta konotazio sakonak dituela:

Arraba: Arratiako batzkuntza, bateratzea. Honez gain, Gorbeiko landa ospetsuaren izena.

Batz: Batzartu, batu, bildu.

Bagara sortzaile batzuk urte askotan bazkideak izanda be, egundo Batzen beharrik egin ez dogunik. Sortu zaneko gure gogo, egokia zan neurrian inkorporatea zan, baina bizitzako ibilbideak beste bide batzuetatik eroan ginduezan.

Hasieran lanean ebilzanak baita geroagoak be, kristonak pasau zituen dirurik kobrau barik batzuetan, lanetik urtetako ordu barik beste batzuetan, eta abar.

Eskerrak gazteak eta umoretsuak ziralta eta noizean behin, beheko plazako Txatoren tabernan, zeozer ospatzerakoan, tristetasunak albo baten uzten zituela!

FELIPE BARRENETXEA
IGORRE

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48.142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEHIOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Baltzitu



Golpe bat jaso ostean azalean urtetan dauan marka ilunari edo odolbatuari deitzeako baltzitu berbea daukagu (baltzitué, agoskatuta). Gure gazteen artean "moratoi" berbea lar zabalduta dabilen arren baltzitu da egokiena. Beste aldaki bat da baltzunea (batuaz, beltzunea). Adibidea: "Laprastada horretan egin dodan baltzitua hilebetea be ez jata kenduko!"

ERETXIA



OLAIA URKIZA ATUTXA

Arratiako Udalen
Mankomunitateko Gizartekintza
Saila

Alkarlana, beharrezkoa

Enplegua, krisia, Alemania, Europa, gazteria eta emigrazioa... gaur egun gertakarietan modan dagozan berbak dira, kezkatuten gaituen gaiak diralako, baina zein da ardura horreen arrazoiak? Gero eta gazte gehiagok, ikasketak amaitu eta gero, gatx daukiela beharra topetea.

Gazteak, gero eta prestakuntza hobegoagaz urtetan dabe unibertsidadetik zein Lanbide Heziketa ikastegietatik, masterrak, hizkuntzak, edo bestelako ikasketak egiten dabezalako karrera amaitu ostean; baina beharra bilatuten hasten diranean zailtasun handiak daukiez, gaur egungo krisi egoereagaitik. Egunero hedabideetan entzuten dogu, gazteen etorkizuna European dagoala, eta talentu handikoak hemendik joaten dabilza beste herrialde batzuetara, etorkizun hobegoaren bila...

Enplegua beharrezkoa da gazteak emanzipetako eta euren bizimodua modu autonomoagoan garatzeko.

2012. urtean, Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM), Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzeagaz (BFA), gazteen egoereagaz arduratuta, eta Iritziak Batuz Kontsultoriagaz batera, prozesu parte-hartzailea jarri eban martxan, esparru desbardinatoko gazteen beharrianak, preferentziak, kezak, eta abarrek ezagututeko. Ostean, egin beharreko ekintza, programa, ikastaro, eta abarretan, instituzino lez, ahal dan neurrian, euren beharrianai konponbideak emon gura deutseguz.

Horreri lotuta, urte hasieran,

gazteentzako ikastaro bi egin doguz, beharra topetako teknikai buruzkoak, bata euskeraz eta beste gaztekeraz, BFAREN dirulaguntzeagaz. Ikastaroetan erabili dogun materiala, gazteen formakuntza mailaren eta euren beharrianen arabera izan da. Gure helburua, gazteai lana bilatuteko teknika desbardinak erakustea eta prozesu horretan orientazio-laguntza emotea dalako.

Gainera, AUMak, Zornotza eta Galdakaoko Udalakaz batera, Galdakaoko Behargintzak bideratuta eta Lanbide ordainduta, Eskualdeko Enplegu Plana egin eban, jagokon diagnostikoaren ostean. Planaren barruan, proiektuak lau zutabe nagusi ditu: Formazio eta enplegurako proiektuak; Kontrataziorako laguntza proiektuak; Formazio espezializaturako proiektuak eta autoenplegurako proiektuak, eta horreek gauzatzeko ekintzak bideratzeko pausuak emoten gabiz, hiru erakundeen artean.

Maiatzean be, COMPITE-SPRI programaren barruan, AUM eta Galdakaoko Udalak, enpresen arteko II. Topaketa antolatu genduan Zulaibar Lanbide Ikastegian. Topaketa horren helburu nagusia, enpresen arteko alkarlana eta merkadu barriak zabaltzeko bideak sustatzea zan.

Momentu honetan, eta gure eskualdeko personai lanerako Orientazio Zerbitzua Arratiatik hurbilen emoteko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuagaz kontaktuan gagoz, maiatzean atera dauan dirulaguntzaren onurak arratiarrentzat izan daitezkan.

Aitatu dogun moduan, orain arte egindakoak eta egiteko dagozan ekintza guztien helburua Arratiako gazteai berton geldituteko aukerea emotea da, kanpora joan gura dabenak, joan daitezkan, baina ez egoereak derrigortuta.

Helburu hau lortzeako guztion alkarlana beharrezkoa da, mankomunidadea, udalak, Diputazioa, gobernua, Lanbide, enpresak, langileak, ekintzaileak, langabetuak, ikasleak... danak batera egingo dogu aurrera.

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...

...BAGARA ETA IZANGO GARA

Enpleguak
Batz 50 urte

MONDRAGON

LUMATUTEN


**BENJAMIN
AURREKOETXEA**

Adostasuna

Sarrionandiaren *Marginalia* berriakurtzen nagoala, sasoi baten egindakoagaz alderatutako asmorik ez euki arren, gura barik etorri jataz burura orduan irakurritako gauza batzuk, eta, beste batzuk, guztiz ahaztuta euki dodaz; ekarpen barri lez hartu dodaz, beraz. Esaterako Gu izenordearen inguruko lan interesgarri sakona, *The Stone Country* gozoarena, idazlegoa eta iraultzaren kontzeptuen barneko Ho Chi Minhen eta Franz Kafkaren aburu sakonak, literatura ideologikoari buruzkoak eta abar. 1.988an argitaratutako lana bada be, ez dau gaurkotasunik galdu. Gehiago esango neuke, idazleak egiten dauzan gogoetak inoz baino biziagoak eta freskoak aurkitu dodaz. Egia esan, guzti hori ez da ordu baten leiduten dan kontua; denporea eroaten dau hausnarketeak. Nik neure aldetik behintzat astia emoten

deutsat horren lanari, eta antzerakoai be bai.

Holango egun baten heldu naz islandiar sagetako pasarte-ri buruzko artikulura eta barreak egin dodaz. Baleiteke begi adinduak horretan laguntzea; ez dakit, baina baleiteke baietz. Dino Josebak, Adostasuna izenburua ipini deutsan artikuluan, Ljosvetninga Saga dalakoan, esate baterako, solas harrigarri bat suertatzen dala Ofeigr buruzagiaren eta Gudmundr gaztearen artean emoten dana, hau haren ohorezko aukian ezarri dala eta.

-Ez dozu uste, Gudmundr, ukabil hau handia danik?

-Handia, izan, bada...

-Uste dozu indarrik badaukala?

-Seguru asko. Uste dot baietz.

-Uste dozu golpe poderetsua emon leikela?

-Izugarri poderetsua...

-Eta horrek, zer kalte ekarriko leikezula uste dozu?

-Hazur haustuak... Edo heriotzea...

-Zer pentsatzen dozu holan hiltetari buruz?

-Zorigaitz handia leitekela pentsetan dot. Ez neuke holan hil gura.

-Orduan, ez zaitez nire lekuan ezarri.

-Bai, ados nago.

-Eta Gudmundr -gerora Indartsua izentauko ebena- aukititik altxau eta mahaiaren bestalde- ra joan zan ezartera.

ZERTZEAN


EGOITZ FERNANDEZ

Edu

Sinadura bat mesedez begiak ireki atea zabaldu.

Denbora azkar doa, iada, zuretzat, geldirik alegia, besteentzat. Alde batean iluna baina bestean argitasuna begiak ireki, atea zabaldu.

Urrun izan,
hurbil sentidu,
hurbiltasunean maitatu,
urruntasunean...
ondoan...

Sinadura bat, askatasuna.
Tinko aurrera begira jarria
dena izango duzu barria
izan zaitez gure artean
ongi etorria!!

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkeru, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak beginu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

San Isidro nekazaria (c. 1082-c.1172)

Kondairak dino santu honek otoitz egin bitartean, aingeruak eta idiak landuten ebela bere lurra. Idiak egon dira aurten be Zeanurin. Aingeruak ez dot uste, baina baserritarrak bai, jai-giro ederrean, baserriko produktuak dastatzen, abereakaz negoziokoak egiten eta baserri munduak bizirik dirauala erakusten.

Azokea, erakustaldiak, idiak, musikea, taloak... santua madrildarra ei zan, baina Zeanurikoa baserriar peto-petoa eta, zelan ez, euskalduna dalakoan nago.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscsl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarribia

Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalegatu Zirkulu 101
R.P.S. 21/06

Olaetxe OPTIKA ZENTRUA

- Graduazinoak
- Ikusmen terapia
- Ikusmen gibatua
- Begiko tentsinoa
- Lentillen adaptazinoak
- Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
T. 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

LEMOA

Alderdikide karneta entregau deutso EAJ-PNVri alkate ohiak

Jabier Beobide Lemoako alkate ohiak "borondatez" entregau eban alderdikide karneta maiatzaren 12an, Bilduk Lemoako EAJ-PNVk 2007 eta 2011 tartean egindako hainbat irregulartasun jakitera emon ostean. 16.000 euro baino gehiago gastau zirala tabakotan eta 48.000 euro baino gehiago jabetxeetan salatu eban Bilduk.



Lemoako Udala.

Erredakzioa

Informazio honen aurrean, EAJ-PNVren Bizkai Buru Batzarrak "argi eta garbi itxi gura izan eban alderdian ez zirala ezagun Lemoako Udalak bere aurrekontuan protokolorako ezartzen zituan gastu partidak". "Hori EAJ-PNVren estila ez da" Itxaso Atutxa Bizkaiko Buru Batzarreko presidentearen arabera. Hori dala eta, "jeltzaleen herrialde ejekutibak berehalako ikerketea jarriko dau abian, orain ezagun izan dan gertakari hori al bait arinen eta zorrotzen argitzeko. BBB hartu-emonetan ipiniko da Lemoako Uri Erakundeagaz gaiaren inguruan dagozan informazioak alderatzeko eta auzia argitzeko. Irregulartasun zantzurik antzeman

ezkero, bakotxari jagokozan ardurak argituko dira eta behar besteko ebatiak hartuko dira" esan eban.

Gastu horreek justifiketan dabezan fakturak "existitzen dirala eta udaletxean daukiezala" emon eban jakitera Saioa Elejabarrietak prensaurrean.

Andoni Ortuzar Euskadi Buru Batzarreko presidentea, bere aldetik, parkamena eskatu eutsen lemoaztarrai Radio Euskadin egin eutsien alkarrizketa baten.

Liburu Beltza

Lemoako Bilduren ustez, "EAJ-PNVren aginte ereduak ahalbidetzen dau puruetan 16.000 euro gastatzea" eta halaxe jakinarazo eban maiatzaren 8an prensaurrean Saioa Elejabarrieta Lemoako

alkateak eta Aitor Erauzkin Bilduko zinegotziak. "Gastu protokolarioen gai hau ez da gure salaketearen funtsa. Gure salaketea kasu konkretu honetatik harago doa. Salatu gura doguna EAJ-PNVren kudeaketa eredu da, eta gastu honek kudeaketa orokor horren barruan kokatzen doguz".

Gastu protokolario honek Liburu Beltzaren lehen zenbakian salatu zituen Bildukoak. Liburu honetan "legezkoak izan arren, etikoki salagarriak" diran jokaerak salatzen zituen eta aurrerantzean be hainbat kontu argitzen joango dirala esan eban: "behargin kontratu irregularrak gertatutakoak, diru publikoaren erabilera ilun batzuk eta urigintzeagaz lotutako kontuak" berbarako.

DIMA

Axpe Goikoa jabetxea funtzionamentuan, erre eta bost egunera

Maiatzaren 10ean, Batz-ekoak bazkaria euki eban Lamindaoko Axpe Goikoan; jabetxea kixkali eta bost egunera. Axpe Goikoa jabetxeak su hartu eban maiatzaren 5ean, bertan 200 bat lagun bazkalduten egozala. Ez zan zauriturik egon, baina kalteak handiak izan ziran.

Erredakzioa

Lau t'erdia aldean jaso eban abisua suhiltzaileak eta N-240 kamionotik jabetxera doan bidea zarratu behar izan eban sua itzaltzeko. Sutea sano handia zanez, zazpi suhiltzaile kamioi behar izan ziran sua amatetako. Arrastiko zazpirak aldera sutea kontrolpean geratu zan, baina suhiltzaileak gau osoan egin eban lan.

Sute handi honen ondorioz, teilatua eta bigarren pisua guztiz erre ziran. Dana dala, beheko pisuan kalteak txikiak izan ziran eta sukaldetan behar egin eitekeala ikusita, jabetxea ez ixtea eta hainbat arinen normalidadera itzultzea ebatzi eban Axpe Goikoan.

Ospakizunak karpapean

Hasikera-hasikeratik, hartutako konpromisoak beteten saiatuko zirala esan eban jaubeak eta holan, kanpoan karpa bat ipini eta sutetik bost egunera, barikuan, hasi ziran jaten emoten. Hurrengo egunetan be emon eban jaten. Izan be, ia urrietara arte daukiez konpromisoak eta obrak egin bitartean karpapean hartuko dabez bazkari eta afari handiak. "Jenteak ondo eran-

tzun dau, karpapean jateari. Jau-nartze bi itxi dabez bertan behera, baina besteak mantendu egin dira" azaldu deutso BEGURI Iñaki Aldape Axpe Goikoako arduradunak.

Duda barik, Lamindao lango inguru baten aire librean bazkaldu edo afalduteak badauka bere enkantua eguraldiak lagundu ezkerro. Gau freskoetan bezeroak gustura egoteko kanpoko berogailuak ipini dabez karpan eta lehenengo egunotako balantzea positibotzat jotzen dau Axpe Goikoakoak.

Konpromisoaz gainera, maiatzaren 14an hasi ziran karta eta egunekoa emoten.

Konpontze lanak

Hondakinak kentzeako lanak hasita dagoz. "Obrak goiko alderditik egin dira eta behe libre dago. Aldamioak dagoz baina uste dogu ez dabela interferiduko. Orain arte ez dogu izan arazorik" dino Aldapek.

Hondakinak kendu ostean, proiektu bat egin eta konponketa lanak hasiko dira, ahalik eta arinen amaitzeko asmoagaz. "Gure asmoa, abuztuaren erdirako obrak amaituta izatea da. San Lorentzorako obrak amaituta eukitea gurako geunke".



Axpe Goikoa.

LEMOA

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarrekin eta Udalak hitzarmena sinatu dabe

Erredakzioa

Lemoako Udalak eta Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarrekin arlo sozio-ekonomikoan euskerearen erabilera sustatzeko hitzarmena sinatu eban, maiatzaren 7an. Saioa Elejabarrieta Lemoako alkateak eta Rober Gutierrez Ziurtagiriaren Elkarrekin zuzendariak sinatu eban abenduaren 31ra arte luzatuko dan hitzarmen hau. Udalak herrian Bai Euskarari Ziurtagiriaren hedapena egiteko inbersinoa aurreikusita eukan 2013ko aurrekontuan. Teknikari batek bisitak egingo ditu herriko komertzio, enpresa eta alkarteetan ziurtagiria

lortu gura daben enpresari lagunduteko.

Gitxi dira Bizkaian Bai Euskarari ziurtagiria daukien entidadeak, 1.400 pasatxo entidadeen artean, 203 baino ez dira bizkaitarrak. Horreen artean bi baino ez lemoztarrak: Kirlan Kirol Lanak S.L. eta Lemoako Udala.

Lemoako alkateak Udalak 2012. urtean alkarteagaz hitzartu eban konpromisoa berretsi dauala azpimarratu eban eta Lemoako alkarte eta enpresari Bai Euskarari Ziurtagiria atera daien animau gura izan eban horretarako bideratuko diran diru-laguntzak emonaz.

IGORRE

Peoi lan-boltsea eratzen dabil Udala

Erredakzioa

Igorreko Udalak peoi lanposturako lan-boltsea egiteko, eskabideak aurkezteko epea zabaldu dau maiatzaren 20ra arte. Maiatzaren 25era arte, barriz, eskabideak aurkeztu ahal ditue ordezkio bake-epaile izentatzea gura dabenak.

Informazio eta agiriak lortzeako, interesa daukien Igorreko Udalera edo Udalaren webgunera, www.igorre.net-era jo daikie.

OPEL
Ibaigane, s. Coop. Ltda.
Estazioa, 15
48330 LEMOA (Bizkaia)
Telf. 631 33 30 - 631 31 31
Fax 631 36 15

Ametzola Landetxea
Ametzola 1-1
48499 Zeberio
629 429 870
www.ametzola.net

FISIOTERAPIA
Balneario Areatza
Tania Fernandez Santiago
COL. 1718
www.gruposasoibide.com
Tel.: 94 657 54 50

LEMOA

Akelarrea izango dau gai II. Euskal Jaiak

Bigarren urtea da Lemoako Jai Batzordeak Euskal Jaiak antolatuten dauana. Aurtengo gaia Akelarrea izango da eta eleizako plazan antzeztuko dabe hau, iluntzeko bederatzia eta erdietan.



ikuspegi bat emon gura deusagu. Jenteak akelarrea lotuten dau sorginakaz baina hori zan Inkisizinoak gura ebana. Herri jaiak ziran, sasoi haretako jai herrikoiak" nabarmendu dau Ainara Fernandez Jai Batzordekoak.

XVI. mendeko giroa

Erropeari jagokonean, batzordekoak lemoaztarrak baserriar janztera animau gura dabez, baina XVI. mendeko kutsua emoteko, andrak sasoi haretan erabilten eben buruko gobara puntadunagaz. Gizonak, barriz, betiko baserriar erropeagaz. Andrak eta gizonak eskuan "baserriko tresnak hartuta. Herrietako eta auzuneetako jente apala irudikatu gura dogu eta". Lemoaztarraren parte hartzea ezinbestekoa dala jaia ondo ateratzeko eta jentearren partaidetzea bultzatzea be izan dala Euskal Jaiaren helburuetako bat dino Fernandezek.

Poteoa eta bazkaria

Akelarrea ez da izango Euskal Jaiaren ekintza bakarra. Izan be, ekitaldiak eguerdiko 13:00etan hasiko dira jubiladuen tabernatik hasitako triki poteoagaz. 15:00etan bazkaria eta arrastiko zazpiretan triki poteoa barriro be; oraingoan, Elizondoko goiko tabernatik urtenda. Akelarrearen ostean kopautxua eta erromeria egongo dira Elizondon.

Erredakzioa

Bertan, 30 persona inguruk hartuko dabe parte Jai Batzordeak prestatutako gidoari bizia emoteko. Durundubari Dantza Taldeak be parte hartze aktiboa izango dau antzezlari honetan eta lemoaztarrak baserriar jantzita eta baserriko lanabesakaz (laia, sardea, eskua...) urtetera deituten dabez Jai Batzordekoak.

Inkisizioa herexiaren kontra. Katarroak, tenplarioak, juduak, maiaruk, protestanteak, sorginak, sexu delituak (Askoren Artean, Gaiak, 2008) liburua erabili dabe batzordekoak erispideak marketako eta gidoia egiteko. "Akelarrearri beste

ARRATIA

Aitita-amamen zaintza lanaz itaunka**Erredakzioa**

Oraingoan, BEGITUREN irakurleen aitita-amamen zaintza lanen gaineko eretxia jaso gura dogu gure inkestearen bitartez. Itauna honako hau da: "Uste dozu ilobak zaintzea ona dala aitita-amamentzat?". Eta hiru erantzunen artean aukeratu behar da: Bai, ilobakaz egiten dabezan lotura afektiboakaitik; Ez, lan zama handia da eurentzat edo-eta, alde onak eta txarrak daukaz.

Aurreko hileko itauna zera izan zan. Ea noz amaituko ziran murrizketak eta eskubide galerak

eta erantzun daben artean gehiengoak uste dau sistema osoa aldatzen ez bada, inoz ez dirala amaituko (% 71,42); Gitiengo batek (% 14,28) 2014an amaituko dirala uste dau eta beste horrenbeste dira aurten amaituko dala pentsetan dabenak. Dana dala, datuok adibide edo bitxikeria moduan baino ez dabe balio, lagina txikerra da eta (7 erantzun).

BEGITUKOOK animau gura zaituegu www.begitu.org webguneko inkestan parte hartzean eta bertan eskegiten doguzan barrietan be zuon komentarioak egiten.

ARRATIA

Mankomunidadeak eta udalak erantzun bateratua genero desbardintasunari

Arratiako Udalen Mankomunitateak Bardintasunerako Plana martiaren 27an onartu eban arren, ia urtebete da Bardintasun Zerbitzua sortu zala. Arratian bederatzia herriatik seik daukie Bardintasun Plana eta beste bik laster izango dabe. Mankomunidadeko Bardintasun Planak herrietakoak izan ditu ardatz moduan, Miren Urresti Bardintasun Zerbitzuko Teknikariaren arabera.

**Arratiako Udalen Mankomunitatea.****Erredakzioa**

Planak bateragarriak eta osagarriak dirala dino Urrestik. "Bardintasun gaietan be, mankomunidadean, osotzen daben udalari zerbitzua emoteko gagoz, gure bitartez euren beharrianai erantzunak emon eta andren eta gizonen arteko desbardintasunak ezabatzeko lan bateratua indartzen". Holan, aurten urte hasikeratik, udalez udal hasi dira martxan, bardintasunari lotutako jarduerak zehazten, herri bakotxaren planaren eta lehenetaren arabera eta udalen beharrianai egokitutako laguntza teknikoak emoten.

Dana dala, herri bakotzak ibilbide desbardina izan arren, preminia batzuk orokorrak dira. "Oraintsu arte, bardintasunerako herri politiketan ekintza positiboak antolatzea izan da nagusi. Hemendik aurrera bigarren estratergiari, jarduera guztietan generoa sartzei, ekingo deusagu sekulako eragina daualako desbardintasun egoera parekatzen" dino teknikariak. Horretarako lehenengo pausua prestakuntzea emotea izan da, beharrianai zein politikariak danak ildo



beretik joateko. "Aurka-aurka ikuspegia aldatu eta, laguntzeagaz, jarduera guztietan generoa kontuan izanda, adibideen eta ereduaren bidez, eginda dagozan esperientzia eta material guztiak aprobetxauko doguz, udalak eta mankomunidadea aldaketarako eragile izan daitezcan".

Horrezaz gainera, Ordenantzearen gaia be landuten dabiz eta, Bardintasun Planetan agertzen dan moduan, Berdinsarean sartzeako eskaria egingo dabe gura daben udalak.

Prestakuntza baino gehiago

Udal eta mankomunidadeko beharrianai prestakuntza emoteaz gainera, mankomunidadeko Bardintasun Zerbitzua indarkeria

aurre egiteko baliabideen gida banandu eban Arratia osoan. "Gazteai begira Beldur Barik programea jarriko dogu martxan, igaz hasitakoari jarraipena emoteko. Eta herrietan, andrazkoentzat seguruak ez diran lekuen mapak egiteko prozesuak ipiniko doguz martxan, batetik, andren partaidetzea sustatzeko eta, bestetik, lekuak identifikatu eta era bateko edo beste urtenbidea emoteko, andrak be lasai ibili daitezcan euren herrietan, espazio publikoa, kalea, gaua danona dalako, andron mobikortasuna mugatzen dabezan oztopoak gainditu egin behar diralako".

Jentarte justuagoa egiteko beharrea

Bardintasun politikak martxan ipinteko prozesua igaz hasi eban mankomunidadeak, Bardintasun Zerbitzua sortu, diagnostikoa egin eta Plana egin ebanean. Teknikariak balorazio positiboa egiten dau eta bide beretik segiduteko asmoa adierazo dau: "andren eta gizonen arteko desbardintasunez jabetu, eta, esparru guztietan eta bakotxaren eginkizunen barruan, erantzunak emon, modu bateratuan, koordinatuta. Izan be, badago zer egin, oraindino indartsu dagozalako desbardintasun egoerak legitimitan dabezan estereotipoak, rolak, eta aurreretiak. Danon artean, indarbakotu behar doguz, jentarte justuagoa eta demokratikoagoa lortzeako".

ARTEA

AKKT Eguna**Erredakzioa**

Arteko Kirol, Kultur eta Euskera Taldeak bere eguna ospatuko dau maiatzaren 25ean. Bigarren urtea da hau ospatuten dala. Ospakizunak plazan izango dira eguraldiak lagunduten badau, eta holan ez bada, frontoian izango dira. Umeentzako puzgarriak egongo dira, babalapiko txapelketea, eta bazkari herrikoia antolatuko dabe talde-

koak. Eguna amaituteko DJ Mariscal-egaz erromeria egongo da.

Arteko alkarte hau 200 bazkide inguruk osotuten dabela emon deutso jakitera BEGITURI Iñigo Ramos alkartekoak.

**Artea.**

BEDIA

Kaleratzen kontra itxialdia egin dabe Alfusen

Alfuseko enpresa batzordeko lagun bi, ELA eta LABeko ordezkari bana, enpresan sartu ziran maiatzaren 14an, enpresa zuzendaritzeari beharginakaz negoziatzinoetan hasteko eskatzen.

Erredakzioa

"Enpresek, inor ez sartzeako agindua emon eban, barrukoak jatekoa eta behar dabezan gauzak ez daizkan eskuratu" azaldu eutsan BEGITUri Tamara Martin LABekoak. Alfus

FCCK 16 behargin kaleratu gura ditu, eta gainerakoak lan-baldintzak aldatu. Apirilaren 29az geroztik greba mugabakoan dagoz.

Cementoseko beharginen bidetik Maiatzaren 5ean, Cementos

Lemona eta Alfus FCCKo beharginak agerraldi bateratua egin eben Bilbon. Egun horretan Alfuseko beharginak 50 greba egun beteten zituen eta Cementoseko beharginak lanpostuen aldeko "burrakearen lekukoa" pasau eutseen Alfusekoai. "Onartezina iruditzen jaku enpresek kaleratze kolektibo hau aurkeztea eta enplegua suntsitu eta lan-baldintzak" okertzeko asmoa salatu eben beharginak.

Lantokiaren militarizazioa

Agerraldian lantokiaren militarizazioa be salatu eben. "Hesitu egin dabe eta egunean 24 orduz armautako segurtasuneko kideak babesten dabe. Enpresek kontratatuko detektibeak be grabau egin gaitue. Gure lanpostuen aldeko burrukea kriminalizau gura dabe".

ARRATIA

Greba orokorrera deia gehiengo sindikalak eta gizarte eragileak

Erredakzioa

ELA, LAB, ESK, EILAS, EHNE, Hiru, CGT eta CNTk eta 60 bat gizarte eragilek, maiatzaren 30erako, greba deialdia egin dabe Hego Euskal Herrian. Ainhoa Etxaide eta Adolfo Muñoz LAB eta ELAko

idazkari nagusien arabera, "egun-go eredu ekonomiko eta soziala aldatzeko aukera bakarra da mobilizazioa".

"Eskubide sozial eta laboral duinak. Euskal Herria eredu propio baten alde" lelopean egingo da greba.



Grebaren aurkezpena.

ARRATIA

Harrerea eta ondo etorria egin eutsien Perez de Anuzitari

Erredakzioa

Eduardo Perez de Anuzita preso hilaren 9an heldu zan Arratiara, Murtziako kartzelatik urten ondoren. Ia hemezortzi urte t'erdi egon da kartzelan Perez de Anuzita. Loiuo aireportuan hartu eben eta ondo

etorria emoteko maiatzaren 11n hainbat ekitaldi egin ziran Arratian. Ekitaldiok Lemoan izan ziran lehenengotik, Diman gero, eta azkenik Igorren. Hemen 250 lagun inguru batu ziran, bertsoak, loreak, jantziari agurra, opariak, eta kantuak egin ziran ekitaldian. Eguerdian,

150 lagun alkartu ziran bazkarian, eta beren beregi prestatutako koplak kantau ebezen.

M18 plazara

Maiatzaren 18an, Herrirak antolatuta, Euskal Herriko 200 plaza baino gehiagotan kartzela politikak salatzen mobilizazioak egingo dira. "Giza eskubideak, irtenbidea, bakea. Euskal presoak Euskal Herrira" lelopean egingo dira mobilizazioak.

Arratian plazarik plaza martxa egingo da. Martxak zutabe bi izango ditu. Bediatik abiatuko da bat 10:00etan, eta Bediako eta Lemoako plazetan mobilizazioak egin ostean, Zeanuritik datorren zutabeagaz egingo dau bat Igorreko Kultur Etxeko plazan 12:30ean. Ekitaldi nagusia Diman izango da 13:30ean. Zeberion, ostera, 20:30ean parrilladea, murala eta Arigomigako gazteen batukadea. 22:00etan kontzertuak, eta gero DJ Ke!

LEMOA

Jardunaldiak herriaren gaineko hausnarketea egiteko

Erredakzioa

Urigintzearen gainean hausnarketea egiteko jardunaldiak antolatu ditu Lemoako Udalak. Izan be, urigintzeari jagokonean herri konplikaua da Lemoa, eta urigintzeak herri baten daukan garrantzia azpimarratzea gura dabe udaletik.

Horretarako hiru hitzordu daukiez gai honetan interesdunak, maiatzaren 7an, 28an eta bagilaren 18an, hain zuzen be. Lehenengoan, udalerrin baten urigintza antolaketea landu zan. Hurrengo

bietan, barriz, urigintza kudeaketea, hau da, bizitegi lurzoruak eta industria lurzoruak eta lurzoru urbanizazioa eta Lemoako landa nukleoak landuko dira. "Askotan herritarrok ez dakigu planteamentu orokor batek guregan daukan eragina. Hori jakinarazoteko Euskal Herri mailan teknikaririk adituena konbidau doguz" azaldu deutso BEGITUri Aitor Erauzkin zinegotziak.

Hizlariak, Anton Agirreogia arkitektoa eta Joseba De Beristain abokatua urigintzan adituak, eta Angel Lucarini Udala Arkitektoa izango dira.



Ondo etorria egin jakon Perez de Anuzitari Igorren.

Beti dago lehen aldi bat edozertarako...

Ezberdin jatera ausartzeko. Eta askoz gauza gehiagotarako ere bai, erosketa supermerkatuara joan gabe egiteko, adibidez. Iritsi zaizu EROSKI online estreinatzeke unea. Eta lehen aldia duzula ospatzeko.

10€

oparituko dizkizugu online egindako lehendabiziko erosketan.

eroski.es

EROSKI online zurekin

LANBIDEAK

Konpontzea lanbide

Edurne Soloeta eta Alejandro Turanzas Arratian behar bitxiak egiten dituen lagun bi dira. Soloeta Arratiako zapata konpontzaile bakarra da eta Turanzas organogilea eta Arteako eleizako organoa konpontzen dabil. Lanbide zahar bi eta gaur egun berbiztuteko aukerea euki dabenak gure inguruan, Arratian bertan.



Edurne Soloeta.

Clara Luja Azpiri

Lanbide bi honeetan lan egiteko bidea ez da ohikoa. Ez dago eskolarik, ez titulurik, ezta ikasketa ofizialik. Beraz, nonor ezagutu behar da ofizioa ikasteko. Soloetak familian izan eban bidea: "Beharra ezagutzen neban nire osabak zapatak konpontzen zitalako. Gaztea nintzanean hasi nintzan lanean beragaz, berak zapatak konpontzen zituan eta nik saldu, denda txiki baten". Turanzasek dino lan minoritario

honeetan bokazinoa garrantzi handikoa dala. "Eleiza baten sartu eta organoa entzun neban lehen aldian gustukoa izan neban. Gero musikea ikasten hasi nintzan, eleizako organista bihurtu eta ebatzi neban horretara dedikatu gura neba. Persona batzukaz kontaktau, eta azkenean lantegi batera joan eta bertan maisu organogile batek irakatsi eustan lanbidea".

Soloetak be beste langile batzuen eskutik ikasi eban zapatak konpontzen. "Osabeagaz egon nintzanean ez neban ikasi, nik

bakarrik saldu egiten nebazan eta berak konpondu. Teoria bane-kian baina ez praktikea. Holango baten Zornotzara joan nintzan, zapatariek dagozalako eta komentau neutsen zelau gura neban jarri zapatari. Oso majoak izan ziran, eurek lagundu eusten eta eurekaz egon nintzan ikasten makineagaz eta abar".

Turanzasek bizitza osoa daroa organoak konponduten, nahiz eta enpresea 2006an jarri Sergio del Campo lagunagaz, Otxandion. Baina ez zan erreza izan, organogile lanbidea ez dago-eta erregulata Espainian. "Legearentzat, gure lanbidea ez da existitzen hemen, eta ezin dogu ogasunean alta emon organogile moduan. Gu, egurraren hitzarmenean gagoz, instrumentu barriztatzaile lez, eta holan organogile guztiak".

Soloetak denpora gitxiago daroa zapatak konpontzen, 2012ko maiatzaren 7an zabaldu eban dendea. Zapatari konpontzailek Igorren ez zala geratzen konturatu zanean otu jakon idea "orain dala urte batzuk, bakarrik hemen Igorren, bost konpontzaile egozan eta gero bat be ez. Danak erretiroa hartu eta ez zan barririk jartzen. Eta esaten neban, ze arraro ez ipintea hemen holango zerbaist, ezta? Azkenean neu animau nintzan". Dendea ipintea pentsau baino gogorragoa izan zala aitortzen dau: "lonjea erosi, gero dana konpondu eta gero beti falta zan zerbaist, pintorea etorri eta arotza falta... pentsetan neban baino luzeagoa izan zan."

har dau, barriztatu eta garbitzeaz aparte. "Arkitektura ezagupenak, fisikakoak, diseinukoak eta musikakoak behar dira ofizio honetan. Nik musika ikasi neban gazetetan eta elektrizista ikasketak be egin nituan, batzuetan organoak elektrikoak izaten diralako eta funtzionamentua ezagutu behar dalako".

Soloetak dino lanean "josteko gauzak egitea da gehien gustetan jatana, zelau egin pentsau behar dodanean". Nahiz eta normalean "takoiak konpondu, gauzak pegau, plantilak ipini eta holangoak izan", makinakaz be egiten dau lan zapatak eta bolsoak josten, edo bolsoak apurtuta badagoz zatiren bat ipinten. Garrikoakaz eta holango gauzakaz be lan egin dau eta maletak be ekarri deustiez inoz, konponduteko.

Turanzasek dino bere lanean gatxena diseinetea dala. "Fisika, matematika eta mekanika kalkulak jakin behar dira, eta gainera instrumentu bakotxa desbardina da eta behar desbardinak ditu. Parte desbardinak, behar diran dispositiboak eta daukazun espazioak asko baldintzatzen zaitue diseinetako orduan". Instrumentua aurrean dagoanean gauzak erreagoak dirala dino organogileak, ez dalako hainbeste pentsau behar. "Batzuetan, instrumentua martxan ipini baino ez da egin behar, edo barrukoa garbitu. Organoak eskatzen dauana hartu behar da kontuan, burua apurtu barik".

Bezerorik bai krisialdian?

Edurne Soloeta zapatariek kontetan dau nahiko urduri egoala negozioa zabaldu ebanean. Baina zabaldu eta gitxira ondo joiala ikusi eban "pozik nabil dendan, beharra dago eta parau barik nabil. Ez aberatsa izateko lain, baina bai bizimodua ondo aterateko". Nahiz eta mota askotako bezerorak izan, andra gehiago etorten dirala dino, "gehien etorten dana edadeko andrea da, gizonak baino zapata gehiago dituelako, akaso. Baina normalean, andreak ekarten dauz gizonaren zapatak,

Edurne Soloeta: "Ikusten da jenteak erabilten ez zituan zapatak, barriro atera dituala"

Lanaren gorabeherak

Zapatariek zein organogileak lan konplikauak ditue. Edurne Soloetak zapatak konpontzeaz aparte boltsoak be konpontzen ditu eta zapatai galdutako kolorea emoten deutse. Honetaz aparte, "betuna eta zapatakaz erlazonautako gauza txikiak" saltzean ditu. Dana dala, ez da zapadenda bat eta denpora gehiena tailerrean egoten da, konponketak egiten.

Organogilearena ondino konplikauagoa da. Instrumentua diseinatu, eregi eta konpondu be-



umeenak eta guztienak". Gainera, gizonenak andreenak baino gitxiago apurtzen dirala kontetan dau, takoi lodiagoak dituelako.

Krisia nabaritu dala dino zapatariak, baina onerako. "Ikusten da jenteak erabilten ez zituan zapatak, barriro atera dituala. Pentsetan dau kolorea emon eta barriro atera lehen gordeta izan dituan zapatak eta oin jenteak erosi baino gehiago konpontzen dauz. Beharra badago".

Turanzasek, baina, bere lanbidean krisiaren ondorioz lan gitxiago dagoala dino. "Nabaritu egin da lan gitxiago dagoala. Baina ez da lan galera lineala izan, gorabeherak dagoz". Organogileen bezeroak konserbatorioak edo auditorioak izan ahal dirala dino, baina batez be eleizak eta parrokoak sensibilidade musikala izan behar dauala organogile bateri deitzeako. "Eleizak dirua gasteteari bildur handiagoa deusala ikusten da. Krisiarena apur bat exajeratu egin da, eta orain jenteak pentsetan dau organoa konpondu ezkeru, beste zerbaite-ri dirua kentzean deusala". Dana dala, gaur be beharra badagoala onartzen dau. "Lan gitxiago da-

goanez erlajatuago gagoz, liberatuago. Baina ez nago inoz geldi lana noz ailegauko etxoten".

Etorkizuneko erronkak

Eskolarik ez egoteak eta lan minoritarioak izateak lanbide ho-

neen etorkizuna zalantzan ipinten dabe. Alejandro Turanzas maisu organogileak dino etorkizuna ez dala segurua instrumentuen etorkizuna bera be kolokan dagoalako eta lanbidea instrumentuak lotuta dagoalako. "Gaur egun, bost edo

sei persona gabiltz Espainia osoan lan honetan, oso minoritarioa da eta jente askok Frantziara edo Alemaniara jo behar izaten dau zerbaist egin behar dauanean". Beraz, etorkizuna zalantzan dago lanbide zahar honentzat nahiz

eta Turanzasek dinoan maisu izan barik "teknikari nahikorik badago, konponketak eta egiteko".

Edurne Soloetak argiago ikusten dau bere lanbidearen etorkizuna. "Nik pentsetan dot jenteak beti konpondu beharko dituala zapatak, eta ez dot pentsetan ofizioa desagertuko danik. Nik ixten dandean erakutsiko deusat beste bateri, transmisioa egon daiten. Zapatak txarrak diranean ez dau merezidu konpondutea baina badagoz berrehun edo hirurehun euroko zapatak, oso onak, eta nik pentsetan dot horreek beti konponduko dirala". Jente gazte askok ez dau hori holan ikusten eta ez dabe zapatak konpontzea lan urtenbide moduan ikusten, baina hori aldatu daitekeala uste dau zapatariak. "Andrak be gitxi egoten dira honetan, baina lehen bat be ez. Arratian ez da inoz andra bat egon zapatak konpontzen orain arte". Edurme Soloetak negoziarako aukerea egoala ikusi eban eta hartu egin eban.

Arratian topau daitekezan lanbide bitxien adbide bi bakarrik dira honenek, beste askoren artean. Batek gora egin dau krisiari esker, besteak, lan gitxiago izanda be bizirik dirau.



Alejandro Turanzas.

Arratiako Musika Eskola
IKASLE BERRIEN MATRIKULAZIOA

2013/14

Epea: maiatzean

- Infante kalea, 2. Artea
- Astelehen, asteazken eta ostiralak
10:00etatik - 13:00 arte
Tlfnoa: 94 631 73 52
- Arratsaldez, zentroetan

arratia.musikaeskola@gmail.com

TXIRRINDULARITZEA

Titan Desert txirrindularitza probako etapa bat irabazi eban Julen Zuberok

Erredakzioa

Julen Zuberok lemoaztarrak, Titan Desert txirrindularitza probaren 3. etapa irabazi eban eta laugarren egun eban saikapenean. Lasterketak sei etapa izan zituan, apirilaren 28tik maiatzaren 3ra arte eta Marokon izan zan. Lasterketa gogor honetan etapa bat irabazten dauan lehen euskalduna izan da Zuberok.

Zuberok etaparik luzeena (Tourza-Tagerumt, 130 km) eta askoren

ustez gogorrena, irabazi eban. Izan be, etapa honek 1.170 m.ko desnibela izan eban eta atzenengo 30 km.ak harea artean ziran eta nabigazioa be behar zan. "Etapa honeri maratoi deitzean deusie. Aurreko egunean eroan behar dira gaua pasetako behar dozuzan gauza guztiak eta etaparik luzeena da" azaldu deusto BEGITURI Julen Zuberok.

Sailkapen orokorrean laugarren Sano lasterketa gogorra da Titan



Julen Zuberok.

Desert; izan be, 600 bat kilometro, 6 egunetan egin behar izan eban partaideak. Proba Luis Leao Pinto portugaldarrak irabazi eban eta arratiarrak laugarren egun eban. "Etapeta irabazi eta gero, nire helburua hirugarren egitea izan zan baina Ondrej Fojtik txekiarrak gehiago izan zan" dino Zuberok.

Bizkaiko Txapelketan hirugarren Hilaren 12an jokatu zan Mendi Bizkaitako Bizkaiko Txapelketa eta bertan hirugarren egun eban Zuberok, lehenengo arratiarra. Egoitz Murgoiok irabazi eban eta Aitor Hernandez izan zan bigarrena. "Proba polita eta ondo antolatutakoa izan zan. Ni, Titan Desert egin ostean, apur bat kantsauta nengoan oraindino, baina pozik nago atetik aurrera egin neban lasterketan eta".

PELOTEA

Hiru txapel Arratiara

Irati Urien

Imanol Arrese igorretarrak, Joseba Etxebarria dimoztarrak eta Beñat Mendia Zeanurikoak txapel bana ekarri dabe Arratiara esku pelotan irabazita. Txapelketa desbardinak jokatu dituez hirurak. Maiatzaren 3an, Lezamako Edorta Bilbao bikotekide eukala Amurrioko Txapelke-

ta irabazi eban Etxebarriak. Egun berean Mendiak be irabazi eban jubeniletan, Mikel Murga bikote eukala. Arresek, ostera, federazioen arteko Gravn Txapelketan irabazi eban buruz burukoan finala. Hilaren 5ean izan zan, Gasteizko Ogeta frontoian; eta Igorrekoak Bizkaia ordezkatu eban nagusien kategorian.



Imanol Arrese bere aititagaz batera.

SEGA



Txukuntasuna eta arintasuna balorauko dira ikuskizun honetan.

Herritarrak segan Zeanurin

Erredakzioa

Maiatzaren 18an, arrastiko 18:00etan, Zeanuriko segalarien arteko lehia egongo da San Isidroetako programazioaren barruan Torreko soloan.

Bost segalarik hartuko dabe parte: Jon Intxaurbek, Kerman Egiluzek, Pabi Astondoak, Irati Astondoak eta Jabi Olibares "Orue"k.

Danak ebagiko dabe neurri bardina, 100 metro karratu eta arintasuna eta txukuntasuna izango dira nok irabaziko dauan ebatziko daben erispideak. Lana txanda

bitan egingo da jentek hobeto ikusi dagian. "Gure asmoa Zeanurin erakusketa bat egitea da, herrian bagagoz segan ibili ziranak eta gaur egun dabizanak eta hori lagun artean egitea sano polita dalakoan egingo dogu erakustaldi hau" dino Irati Astondoak.

Baina erakusketa be egongo da lehiaketa baino lehenago eta egundo jentaurrean segan egin bako herriko 6 gaztek hartuko dabe parte: Gaizka Bilbao, Endika Etxebarria, Julen Iturbe, Katalin Larrakoetxea, Ainhua Mendia eta Irati Urien izango dira honek.

MARATOI TXIKIA

Maratoi Txikia bagilaren 2an

Erredakzioa

Arratia Ikastolak eta Arratiako Institutuak antolatuten daben Arratiako XXXIV. Maratoi txikia bagilaren 2an izango da. Edade guztietakoak hartzean dabe parte, edade bakotxari egokitutako ibilbide bat eginez. Arratiako zein kanpotik etorritako ehundaka umek eta gaztek eta ez hain gaztek egingo dabe galapan kirola bultzatzeko antolatzen dan jai handi honetan.

Nagusiak Zeanuri-Igorre (11 km) ibilbidea egingo dabe. Urtekera 10:00etan da Zeanuritik eta izen emotea Igorreko kiroldegian 09:30ean edo Zeanurin bertan. Igorretik Zeanurira joateko autobusa egongo da 09:30ean. 1996tik 2000ra jaiotakoak, Artea-Igorre ibilbidea egingo dabe, 10:15ean urtenda. Izen emotea Arteako plazan izango da 09:30etik aurrera. 2001etik 2004ra jaiotakoak, barmiz, Dima-Igorre ibilbidea egingo dabe Dimako plazatik goizeko hamarretan urtenda. 2005ean jaiotakoak eta gazte-agoak, Igorreko eskoletan prestatutako zirkuitua egingo dabe, 10:00etan.

indar
instalazio elektrikoak

Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAIA
t. 94 655 47 19
indarsi@indarsi.es • www.indarsi.es

umean moda

sew
0-16

Agirre Lehendakaria, 27 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • seimoda@hotmail.com

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu

Bixarra egin eta txukunduten dogu

Elexalde, 20 Rober ☎ 630 743 543
48.140 Igorre Manuel ☎ 661 848 793

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN

ZUZENBIDE

ZERGA ETA DERU KONTSULTAN
ONDASUN HIRUGIZENEN
ASIGURULETAN

Beltza Arria, 3-3. floor. 48 671 71 41 - Fax: 48 671 94 41 - 48140 IGORRE

axular
kultur dibertu

Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

ekin s.l.
CONSTRUCCIONES

Iturriotz barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: obras@construccioneseekin.com

LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIOAK
UR SAREAK
SANEAMENTU SAREAK
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK

Pinturas Arratia

Javi Morato
Tel. 628 443 992

HERRI KIROLAK

"Errebantxa"-n bardinketea Zeanuri eta Dimak



Dima eta Zeanuriko taldeak.

Argazkia: Urtzi Uriarte.

Irati Urien

Dima-Zeanuri arteko herri kirol desafioko "errebantxa"-n bardinketea suertatu zan. Ikusle piloia, frontoia bete-beteta egoan Zeanurin. Jon Uruxurtu izan zan aurkezlea, eta Iñaki Iturriotzek bertsoa botaz hasi eban norgehiagokea. Probak banan-banan aitatuz, hementxe emoitzak: trontzan nesketan Zeanurik, mutiletan Dimak. Ingudean bardinketea nesketan eta Dima

garaille mutiletan. Aizkoran, zakua eta txingak Zeanurik; sokatiran eta txokorretan Dimak. Erifen irabazleak be atera ziran. Lehenengo sari lez otzarea eroan eban Peli Manterolak. Gaztaia izan zan bigarren saria, eta Miren Ozerinjauregik lortu eban. Hirugarren zenbakiaren jaubea ez zan agertu, 542 numeroa izan zan. Behin frontoiko erakustaldia amaituta, afari eta erromeri giroaz gozatu ahal izan eban gerturatu ziranak. Gure webgunean Urtzi Uriartek Zeanuriko norgehiagokan ateratako argazki batzuk eskegi doguz.

BOLA JOKOA

Ortuzar eta Manzanedo hirugarren

Erredakzinoa

XLI. Bizkaiko Bola Txapelketea jokatu da maiatzean Zornotzako San Bartolome bolalekuan. Binakakoan, Lemoako Iñigo Ortuzarrek eta Ibon Manzanedok osotutako bikoteak hirugarren egin eban. "Lehenengo aldia da Lemoako taldeko bikote bat lehenengo hiruren artean sartzean dana" dino pozik Imanol Artabe Lemoako Bola Taldeko presidentek. Binakako Bizkaiko Txapela Zornotzako bikote batek eroan eban. Iskander Barrenetxea eta Imanol Artabe Lemoakoak zortzigarren egin eban.

Banakakoan ez ziran hain ondo geratu arratiarrak. Izan be, aurren geratu zana Lemoa taldeko Iskander Barrenetxea izan zan 11. postuan, Lemoako Imanol Artabek 14. egin eban eta Obako "Txirpu"-k 18. Txapela San Antonio taldeko Iñaki Izurzarentzat izan zan.

FUTBOLA

Denporaldia azkenetan

Clara Luja Azpiri

Arratia futbol taldeko gizonenekoak husna bardindu eban jokatu eban azken partidua, Galdakao A taldearen kontra. Galdakao Santa Barbara zelaian jokatu zan partidu hau, maiatzaren 12an. Holan, hogeta hamahirugarren jardunaldiaren ostean Arratiak puntu bat gehitzen dau eta klasifikazioaren seigarren postuan geratzen da, berrogeta hemeretzi puntugaz. Hurrengo partidua Igoerreko Urbietan zelaian izango da, maiatzaren 18an, arrastiko bostetan, Trapagaran A taldearen kontra.

FUTBOLA

Arratia taldeko mutil Kumeak txapeldun

Erredakzinoa

Kume mailako Arratia talde biak denporaldi ezin hobea egin dabe. Mutilak A mailako txapeldun izan dira eta neskek 2013ko Kopea irabazi eban.

Jaime Atxa billaroztarrak entrenetan dituan mutikoak, Arratia Futbol Taldeko Kumeak (11-12 urte), ligako txapeldun izan dira A mailako 3. taldean. Arratiarrak A mailako txapeldunen arteko ligatxoia jokatu dabe Lagun Artea, Danok Bat A eta Somorrosto taldeen kontra eta partidu guztiak irabazi eta gero A mailako txapeldun oso izan dira.

Plentziako torneoan be txapeldun

Martian jokatu zan Plentziako torneoan be txapelduna izan zan Arratia. Hemen, 16 taldek hartu eban parte. Finalean Arratiak penaltietara irabazi eutsan Athletic B taldeari, norgehiagokea bina amaitu ondoren.

Taldearen babeslea dan Hotel Balneario Areatza eskertu gura dau Arratia taldeak "aurtengo denporaldian emondako laguntzeagaitik. Taldeko entrenatzaileak diran Jaime Atxa eta Eneko Iriondo be, Ameriketako Estatu Batuetan dago orain dala hile batzuk azken hau, eskertu gura doguz Arratiak urte guztian egindako lanagaitik".



Arratia taldeko Kumeak.

Gure Ikastetxeak
Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urteik 18ra. Eskalduna, kalitatekoa, herrikoa

- Arratia BHI**
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igoerre
- Ikastola Arratia HI**
Tel.: 94 673 90 45 Faxa: 94 673 90 45 Artea
- Zubialde HI**
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio
- I. Zubizarreta HI**
Tel.: 94 673 40 22 Faxa: 94 673 40 22 Igoerre
- Areatzako Herri Eskola**
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza
- Zeanuri HI**
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri
- J.B. Eguskiza Meabe HI**
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa
- Ugarana HI**
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Mour hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoak, Hezkuntza zikloak

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igoerreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igoerre Bizkaia

RUGBY TABERNA

•Egin zaitez bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak

arratiko.zekorrak@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

DANERIK

Zinea, jantzea eta kirola Areatzan

Erredakzinoa

Kultura eta kirol eskeintza oparoa prestatu dabe maiatzerako Areatzan, Udalak, bertako alkarteak eta herritarrak. Holan, eskeintza kulturalari jagokonean, Areatzako Kirol eta Kultur Batzordeak, esaterako, xake ikastaroa dauka martxan eta maiatzeko eguen guztietan daukie eskolea Udal Aretuan. Alkarte honek hilaren 16rako, zineforuma antolatu dau. *Cantando bajo la lluvia* izango da aukeratutako filma,

honen aurkezpena Jose Angel Rebolledo EHUko irakasleak egingo dau.

Beste film bat be ikusteko aukerea egongo da Areatzan, Emakume Foroak *Historia de un secreto*, haurdunaldi etetearen gaia jorrazten dauan filma ekarriko dau eta. Emonaldia, hilaren 21ean, izango da arrastiko Udal Aretuan.

Jantzazaleak Euskal jantzak praktikau ahal izango dabez eguazten guztietan, zortziretan, udaltekoko ispilu gelan. Gura dauanak

hartu ahal dau parte, bere maila edozein izanda be. "Ez da irakasle profesionalik egongo, ez da dirua ordaindu behar, ezta izena emon be. Bakarrik bertara joan eta jantzan egin" dinoe antolatzaileak.

Patinaje ikastaroa

Kirol eskeintzeari jagokonean, AKKBk patinaje ikastaroa antolatu dau hilaren 22rako. Herriko frontoian izango da eta arrastiko seiretan daukie zitea umeak, eta zazpiretan nagusiak.

Lamino Mendi taldeak Orisoleira urtekerea prestatu dau hilaren 19rako. Umeakaz egiteko aproposa dala dinoe. Urtekerea 09:30ean eleiz portikutik izango da.

MUSIKEA

Gose taldearen kontzertua, erakusketea eta antzezlan

Erredakzinoa

Gose taldeak kontzertua eskeiniko dau Igorreko Kultur Etxean maiatzaren 24an gaueko 21:30ean. Gose 2005eko udan sortu zan Arrasateko taldea da. "Triki eta elektronikearen arteko amodio istorio harek halako frutua emon ahalko leukenik inor gitxik espero eban orduan. Euskal kulturea, euskerea eta, orohar, euskal musika oinarri hartuta abiatu zan proiektua. Beti be, ordenagailuko pantailaren beste aldetik begiratuta. Hori da eta gose: elektronika eta arimea" dinoe Igorreko Kultur Etxekoak.

Musika egitasmoa da bere zuzenekoetan argi itxi daben mo-

duan. Gose taldearentzat irudiak be badauka bere garrantzia, eta ez edozelangoa. Arrasateko taldeak kontzertuetan, proiektzioak erabilten dauz bestiak jantzeko, edo erantzeko. "Gose jan egiten da, eta entzun. Ikusi eta dastatu". Urteetan zehar gure folkloreak "ume gaiztoa" izan dan trikitixea oinarri hartuta, Gose taldeak euskal herri-musikari beste ikuspuntu bat emon gura izan deutso.

Elektro-jazza, tangoa, sehaska kantua, afrobraziliar perkusinoak, teknoa, punka edota arin-arina dagoz entzungai Gose taldearen kantuetan. Triki eta sekuentzia elektronikoak nahastuz eta Ines Osinagaren abots goxoak lagunduta.



Gose taldea.

Erakusketea eta antzezlan

"Ilusio-aleak" erakusketearen aurkezpena maiatzaren 4an izan zan. Bertan jokoak, musika, te dastaketea eta abar egon ziran. Euskal Herriko Saharar Gazteen Alkarteak antolatu dau eta Sahara eta Euskal Herriaren arteko hartu-emon indartzea eta Saharako kanpamentuetan dagozanen egoerea erakustea dauka helburu. Erakusketea maiatzaren 29ra arte zabalik egongo da Igorreko Kultur Etxeko Lasarte Aretuan.

Maiatzaren 31n ostera *Etxean goxo* umeentzako txotxongilo ikuskizuna egongo da arrastiko 17:30ean Kultur Etxean.

UDALEKUAK

Udan, Uitzira Zaztaparrakaz



Erredakzinoa

Zaztaparrak Asti Taldeak martxan ipini dauz aurtengo udalekuak. Abuztuaren 5etik 16ra egingo dabez Uitzin, Nafarroako Leitza eta Lekunberri artean dagoan herri txikian. 6 eta 17 urte bitarteko ume eta gazteak joan ahal izango dira bertara. Baina aurten izena emoteko ez dago telefono zenba-

kirik. Begirale bi egongo dira Igorreko Kultur Etxeko kanpokaldean, hau da, Lasarte parkean, egun eta ordu honeetan: maiatzaren 10 eta 17an, 18:00etatik 20:00etara; eta maiatzaren 11 eta 18an, 11:00etatik 13:00etara. "Gura izan ezkerro, beraz, bertara hurbildu eta emon izena!" dino June Egileor Zaztaparretako begiraleak.

www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net
Zabalik 07:00 - 19:00

ALKIZABAL

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta-Lemoa bidea
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26
48330 Lemoa (Bizkaia)



KÄRCHER
Banatzaile ofiziala

















• Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
• Garraio zerbitzua.

BERTSOLARITZEA



Urteroko zitea Iturriaga eta Maiagaz Diman

Hamar urte inguru daroz Luis Prieto Lagun Taldekoak bertso bazkaria antolatzen.

Erredakzioa

Hamar urteotan bertso bazkaria ezezik hamaika ekintza egon dira, pelota partiduak, herri kirolak, umeentzako jolasak, kontzertuak... "mila ekintza eta mila amets" di-
noe Lagun Taldekoak.

"Lehenengo bazkariaren helburua herriko kultur ekintzak berbiztea izan zan, horren gogoz genbizan bai bertso eskolakoak bai Luis Prieto Lagun Taldeko ki-
deak, hori dala eta bertso bazkaria alkarregaz antolatutea ebatzi gen-
duan" dino Ibon Izak.

"Hasikerako urteetan jente pilo-
a batu ginan, baina oraindino be
170 persona inguru batzean gara
eta hori Dima moduko herri baten-
tzat ikaragarria da, ia etorkizunean
be holantxe izaten dan!" dino Izak.

Saioa bagilaren 1ean izango da. Goizean umeentzat puzgarriak egongo dira, eta beste hainbeste sorpresa. 14:00etan bertso-baz-
karia egongo da. Dimako Udala, guraso alkarrea, eskolea, Luis Prieto Lagun Taldea eta bertso esko-
lakoaren artean antolatu dabe, talde ugari helburu bardin baten atzean "guk, guretik eta guretzat".

Sarrerak 12 eurotan erosi ahal izango dira, bazkideak 10 eta umeak 5 euro, Dimako Jentiluzubi Herriko Tabernan eta Igorreko Gau Lora tabernan.

Bertso bazkariako bertsolariak ham-
mar urtean hiru izan dira. Aurten Jon Maia eta Unai Iturriaga izango dira, baina urte batzutan Amets Arzallus be etorri da. Azken honek urte baten esku pelotako desafioan be parte hartu eban.

KARABIE

Palestinaztarren exodoaren gorazarre egingo da

Erredakzioa

Arabierazko *nakba* berbeak hondamendi esan gura dau eta 1948ko arabiar eta israeldarren arteko gerrearen ondorioz, etxea galdu eta exodoan iges egin behar izan eben errefujiadu palestinarrak egiten deutso erreferentzia. Lemoako Karabie Gaztetxean, *Nakbaren* oroimen ekitaldia antolatu dabe maiatzaren 23rako. Egun horretan, bandera igoera eta bideo emon-
aldia egingo dabe. *Cinco cámaras rotas* pelikulea ikusi ahal izango da eta "brigadista baten parte hartzea" egongo da ondorengo berbaldian.

Cinco cámaras rotas (Emad Burnat eta Guy Davidi, 2011) filmak arabiar eta israeldarren arteko gatazka kontetan dauan saritutako filma da. 2012ko IDFA festibaleko epaimahaiaren sari berezia eta publikoaren saria jaso zituan, baita Sundance-ko festibalean zuzendari onenari saria.

Bere laugarren umea jaiotakoan Emad-ek kamara bat erosten dau eta bost urtez, gatazka hau grabetan dau: erresistentziaren burrukea, armada israeldarraren erredresinoak eta abar.



KARABIE

Giroa berotzeko mikroipuina

Erredakzioa

Lemoako Karabie Gaztetxeak Mikroipuina Erotikoen Masterraren II. edizinoa ipini dau martxan. Parte hartzea guztiz anonimoa da eta lanok Karabie Gaztetxearen blog-ean www.blogak.com/karabie komentario moduan idatzi behar dira. Bagilaren amaieran "danak batu eta igazko moduan liburuxka bat egiten saiatuko gara" azaldu dabe Karabie Gazte-
txeok euren blogean.

Antzezlanaren hilaren 31n

Maiatzaren atzenengo egunean *Euskalduna naiz eta arraro nago!* bakarrizketa saioa ikusteko aukera egongo da Euskal Herrian Euskaraz taldearen eskutik, Karabien, arrastiko 20:00etan.

LEHIAKETEAK

Jaietako kartel lehiaketea

Erredakzioa

Lemoako jaietako kartel lehiaketa-
tan parte hartzeako epea zabalik dago bagilaren 19ra arte. Lehiaketa Lemoako hartu daikie parte eta kartelotan, "Lemoako Jaiak 2013" agertu behar da. 175 euroko sari bi egongo dira.

Eskuz edo ordenagailuz egin-
dako kartelak onartzen dira, A4 neurrian eta egilearen sinadura barik aurkeztu behar dira udal-
txean.

MUSIKEA

Euskal instrumentuak jotzen ikasteko metodologia barria

Erredakzioa

Arratiako Musika Eskoleak me-
todologia barria erabiliko dau 2013-2014 ikasturtean, alboke, panderoa, txalaparta eta ataba-
la jotzen irakasteko. Metodologia hau "instrumentuari egokitua eta emonkorragoa" izango da.

Musika Eskolan euskal instru-
mentuak jotzen irakasten hasi zira-
nean, beste instrumentuak irakas-
teko erabilten dan metodologiagaz
hasi ziran, baina ez dala modurik
egokiena ikusi dabela dino Iker Diez
irakasleak. Instrumentu bakoitzeko
astero ordu erdi bat emoten da,
baina txalaparta, berbarako, biren
artean jotzen da beti eta irakaslea-
gaz jotea erreza da "praktikak egin
behar dira beste ikasle batez".
Holan, ikasleak binaka ordubetz
hartzeak, ikasten lagunduko dauala
uste dau Diezek, ez bakarrik txala-
parteen kasuan, beste instrumen-
tuen kasuan be bai. Alboka eskolak
binaka emon ezker, "biai eguneko
azalpenak emon, eta gero ensaie-
tako tarte bat euki eta batera joteko
aukerea emoten dau. Emonkorragoa
da eta hori oso interesantea da".

Matrikulazio epea zabalik

Maiatza osoan matrikulatu daite-
kez ikasle barriak Arratiako Mu-
sika Eskolan Artean Infante kalea
2.ean, astelehen, eguzten eta
barikuetan 10:00etatik 13:00eta-
ra; arrastiz zentroetan be matriku-
latu daitezke eta telefono bitartez
be egin ahal da.

DUNBA

Frackinga



6. mailako ikasleak.

Igorreko Inazio Zubizarreta eskolako 6.mailako ikasleak

Ezagutarazo gura dogun gaia frac-
kinga da, fracking edo haustura
hidraulikoa gasa aterateko tek-
nikea da. Sakonera handitan eta
hatx irangaitzetan dagoan gas
naturala aterateko erabilten da:
lehenik eta behin 5.000 metrora
arte modu bertikalean zulatuten
da eta ostean hainbat kilometro
(2tik 5era arte) modu horizon-
talean zulatuten da. Momentu
horretan ura sartuko da presi-
no handiz, hareagaz nahastuta
eta hainbat gehigarri kimikogaz.
Modu honetan hatxa apurtu egi-
ten da, gasa aske geratu eta lur-
zorura igoten da putzuan zehar.

Europako herrialde askotan
galazota dago teknika hau, ur

kantidade handiak kutsatu eta
lur azpian egiten diran leherketak
lurrikarak sortzean dabezalako,
baina Eusko Jaurlaritzak fracking-
a garatuteko Euskal Herrian eta
gure Arratiako bailaran ikerketak
egitea ahalbideratu dau.

Gu horren kontra gagoz, ku-
tsadura handia sortuten daualako
eta gure etorkizunak asko ardura-
tuten gaitualako.

Ez ete dagoz beste alternatiba
batzuk energia lortzeako? Esate-
rako: biogasa (animalien honda-
kinakaz), energia barritagarriak:
eguzki energia, haizearena, ola-
tuena...

Gainera, gure paisaje polit, ber-
de, eta hainbeste urtetan gure
aitita-amamak ondo jagon dabe-
na, kakaztuko leitekealako.

Gu ziti honegatik eta teknika



kutsakor honen aurka gagoza-
lako, Eusko Jaurlaritzako aginta-
riak eskatuten deutsegu mesedez
frackinga galazotea.

AGENDEA

MAIATZA
AREATZA

Maiatzeko eguenetan 18:30etik 19:30era, Xake tailerra Udal Aretoan. Eguazten eta zapatuetan, 18:00etatik 20:00etara Udabari Txapela frontoian. AKKBk antolatuta.

MAIATZAK 16
AREATZA

19:30ean, zineforum-a *Cantando bajo la lluvia* Udal Aretoan. Hizlaria: Jose Angel Rebolledo.

IGORRE

20:00etan, zine kluba *Simon del desierto* (Luis Buñuel, 1965).

LEMOA

19:30ean, memoria historikoaren batzorde hemikoiak antolatuta, aurkezpena: Lemoax 1937. Ostean *El bombardeo Gemika. The story* filmaren emonaldia Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

MAIATZAK 17
IGORRE

17:45ean, eraldaketa soziala eta hezkuntza alternatiboa bultzatzen dituan Bizitoki ekimenaren aurkezpena Gorka Torrerren eskutik Kultur Etxean.

20:00etan Herriak antolatuta batzarra.

"Zer egingo dogu Igoeren preso eta iheslarien eskubideen alde?". Kultur Etxean.

LEMOA

15:00etan, JB Eguzkitza Meabe ikastetxeko ikasleen emonaldia kiroldegian.

22:00etan, *Anplag* kale antzerkia, Elizondoko Kultur Guneko plazan. Ondoren, Lemoako II. Narrazio Lehiaketaren sari banaketeta.

MAIATZAK 18
ARRATIA

10:00etan, Herriak antolatuta Arratiako plazatik plazara kartzela politikak salatzeo ibilbidea eta mobilizazioak. Ikusi 7. orrialdea.

AREATZA

Parkeak antolatuta, mendiko urtekereak Ibinako Neberabari edurzulora bisita gidatua.

DIMA

15:30ean Auto Slalom-a industrialdean.

16:00etan, Eskualdeko Bola Txapelketeta Obar.

IGORRE

22:00etan, zinea *Anna Karenina* Lasarte Aretoan.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Eskalada tailerra.

Aste Kulturalaren barruan, Elizondoko Kultur Guneko plazan: 11:30etik 13:30era, "Hau da Afrika!" puzgami erraldoia eta tailerrak. 18:00etan, gazteentzako perkusino tailerra. 20:00etan, jantza eta perkusino afrikarra ikuskizuna Djembe Kan taldearen eskutik.

ZEANURI

18:00etan, Zeanuriko segalariaren lehia Torreko Soloan.

ZEBERIO

20:30ean, Herriak antolatuta kartzela politikak salatzeo: parriladea, murala eta Arrigorriagako gazteen batukadea. 22:00etan kontzertuak Txapa eta pintura eta Punto muerto taldeak, gero DJ Ke!

MAIATZAK 19
AREATZA

09:30ean, Lamino Mendi Taldeak antolatuta urtekere Orisol (1.131m). Eleiz portikuan.

DIMA

Jantzi Txiki Eguna.

IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Jack el cazagigantes*.

19:30ean, zinea *Anna Karenina* Lasarte Aretoan.

LEMOA

13:00etan, Mendieta Herri Kirol taldeak antolatuta, aizkora erakustaldia Elizondoko Kultur Guneko plazan.

17:00etan, Lemoako Esku Pilota taldeak antolatuta, pelota tailerrak, pelota jokoak eta erakustaldia frontoian. 19:00etan, "Argia" emonaldia *Den dena kendu ziguten* dokumentala Kultur Gunean.

MAIATZAK 21
AREATZA

19:00etan, Arratiako andra taldeak antolatuta, zinea *Historia de un secreto*. Udal Aretoan.

MAIATZAK 22
AREATZA

18:00etan, AKKBk antolatuta, patinaje ikastaroa umeentzat. 19:00etan nagusientzat. Frontoian.

MAIATZAK 23
IGORRE

20:00etan, zine kluba *El fantasma de la libertad*.

LEMOA

Nakbaren Oroimen ekitaldia Karabie Gaztearen. Ikusi 13. orrialdea.

MAIATZAK 24
AREATZA

19:00etan, jubiladuai zuzendutako berbaldia "Timos y practicas comerciales abusivas" Udal Aretoan.

BEDIA

Jubiladuen Alkarteak antolatuta urtekere. Hondarribi.

IGORRE

21:30ean, Gose taldearen kontzertua Kultur Etxean.

MAIATZAK 25

ARTEA

AKKT Eguna. Ikusi 6. orrialdea.

IGORRE

22:00etan, zinea *Los últimos días* Lasarte Aretoan.

MAIATZAK 26

IGORRE

19:30ean, zinea *Los últimos días* Lasarte Aretoan.

MAIATZAK 28

BEDIA

17:00etan, tailerra: farolxoak. Liburutegian.

LEMOA

19:00etan, Urigintza kudeaketa: "Lemoako bizitegi lurzorua eta industria lurzorua". Jubiladuen Etxean.

MAIATZAK 29

BEDIA

17:00etan, tailerra: farolxoak. Liburutegian.

IGORRE

19:00etan, Arratiako andra taldeak antolatuta, zinea *Historia de un secreto* Kultur Etxean.

MAIATZAK 31

IGORRE

17:30ean, txotxongiloak *Etxean gozo* Kultur Etxean.

19:30ean, hileko azken bankua, Herriak antolatuta preso eta errepresaliaduen aldeko konzentrazioa.

LEMOA

19:30ean, hileko azken bankua, Herriak antolatuta preso eta errepresaliaduen aldeko konzentrazioa.

20:00etan, bakarriketa saioa *Euskalduna naiz eta arraro nago* Karabie Gaztearen.

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, urtekereak bagilaren 2ra arte. Cotos mta. Cabeza de hierro (2.383 m)-La Maliciosa (2.227 m)-Navacerrada mta-Cercedilla. Siete Picos (2.120 m)-Monton de trigo (2.155m).

ZEBERIO

20:00etan, hileko azken bankua, Herriak antolatuta preso eta errepresaliaduen aldeko konzentrazioa.

BAGILAK 1

DIMA

14:00etan bertso bazkaria Iturriaga eta Maiagaz.

BAGILAK 2

ARRATIA

Maratoi Txikia. Ikusi 10. orrialdea.



The Quiet Corner-ek urte bat

Urtebete da Areatzako The Quiet Corner-ek ateak zabaldu zituala. Hori ospatuteko, maiatzaren 18an Josep Maria Ribelles arpa-joleak eta Kepa Junkerak kontzertua eskeiniko dabe euskal irlandar taberna honetan. Ez da hori izango hamabostaldi honetako kontzertu bakarra; izan be, hilaren 25ean, Malcolm Scarpa egongo da eta 31n, Behind.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU
SALGAI

Garaje partzela salgai Lemoa erdigunean. 660 549 695 Bego.

JOSTEKO MAKINEA SALGAI

Alfa 1203 modeloa. Oso ondo zainduta, gixitan erabilia. 100€. Telefonoa: 661 273 192 (Laxia).

SALGAI

Haretezko arasa ederra salgai. 139zm zabal, 50 sakon, 193 altuera. Ikusgai dago Elexalde 10ean, Igoeren. 800 €. 615 731 182.

AUTOA SALGAI

Fiat Punto 1.2 Dynamic 5 ateduna. 8 urte ditu. ITVa 2014ko bagilera arte pasautu, 672 762 066 (Gaizka).

AUTOA SALGAI

Toyota Landcruiser-a saltzean dot. Interesdunak 615 728 940 zenbakira deitu (Pili).

ETXEA SALGAI

Babes Ofizialeko pisua salgai Areatzan. Aukera ezin hobea Arratian biziteko. 3 logela, bainu bi, sukualdea ipinita, saloia, garagea eta trastelekua. Nerea 674 798 984.

DANERIK

ETXEA ALOKATZEN DOGU

Alokairuan dagoan pisu baten bila gabizan neska arratiar bi gara. Alaitz eta Maider 652 722 698.

BIZIKLETEA GURA DOT

Errepidean ibilteko bizikletea gura dot. Zaharra eta merkea bada, barria eta karua baino hobeto. Idatzi: sautuolabarri@gmail.com helbidera.

GARAIEA ALOKAIRUAN

Zeanuriko plaza-plazan dagoan garaiea emongo neuke alokairuan. Interesdunak 94 631 70 46 telefonora deitu (Iluntzetan).

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:


1 Igoerreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Gose taldearen kontzerturako.

Olatz Elejabarrieta (Lemoa)
Nagore Bernaola (Dima)



2 Igoerreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Anna Karenina* filma ikusteko.

Galder Olibares (Igorre)
Sara Gutierrez (Areatza)



3 Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,


zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 11

urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

- 1.- Behiak egiten dau. Koxo.
- 2.- Inesiboan, aldean, inguruan. Informatikan, memoria.
- 3.- Kontua.
- 4.- Konsonante bat. Une honetan.
- 5.- Eguzkiaren jainkoa. Bokala. Begiak itxita.
- 6.- Kaza. Berrogeta hamar erromatar.
- 7.- Arrainen brankiak.
- 8.- Uretan hil. Agurtzeko onomatopeia.
- 9.- Norvegiako uriburua. Musika notea.

GOITIK BEHERA

- 1.- Musika notea. Salneurri.
- 2.- Uribildu. Lohi.
- 3.- Izakera. Kaskal.
- 4.- Mila erromatar. Letxugea. Bokal borobila.
- 5.- Erreza. Etxera sartzeako.
- 6.- Artagara. Egur.
- 7.- Gizonezkoen izena. Azpi. Galdera aurretik.




Topau kolore zuriagaz ezagutzen diran zazpi kontzeptu edo gauza.



AKI MI KO

Iman Olatu



BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA
Instalazio elektrikoak - Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoak
Juan de Ajuriagerra 1 Behea 48330 Lemoa
Tfnoa-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

AKESOLO, S.A.
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Garbe, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

Los Chopos
neurritza egindako armairuak
Avenida Los Chopos, 35 (Nagusi) Tel.: 94 630 40 94
Esposizioa eta fabrika Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

FOTOKOPIAK - PAPERBENDA
L. Agirre, 2
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnoa.: 94 673 64 35

INCOESA
Tel. 94 631 32 75
Faxa. 94 631 37 66
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia

AKEITEGIA
GAY IS LORA
IGORRE

KIRRU ILEAPANDEGIA
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 beja - 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 631 92 00

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3, 3a 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia 609-79-40-54

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

Igorren ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Emilio Goitia banatzaile ofiziala
San Miguel
Ardoak Edariak
94 673 64 02 Industrialdia E-3 Pabeloa (Igorre)

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ
Balonak: A1, A, B1, B
Lehendakari Agirre 31
Tfnoa.: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@euskalnet.net

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskaraz zein erdaraz
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 80
e-posta: urrozul@euskalnet.net

**MAITANE IZA, OIER LADISLAO
ETA JOANA ESPARZA**

Aktore lanak egiteak egoera desbardinak biziteko aukerea emoten deutse gazteai

Zugan Ni antzerki proiektuan parte hartzean dau Arratia Institutuak. Talde bi dagoz, bata DBHko ikasleak osotuten dabe eta bestea Batxillerrekoak. Batxillerrekoak irabazi egin dabe *Petralandako ingurumarie* izeneko antzezlanagaz eta DBHkoak hirugarren egin dabe *Goizeko izarra* izenekoagaz. BEGITU, Maitane Iza, Oier Ladislao eta Joana Esparza *Petralandako ingurumarie* laneko aktoreakaz egon da.

Erredakzioa

Petralandako ingurumarie zertaz da?

Maitane Iza: Tratau beharreko gaia "gure herria" zan, eta guk sorginen ikuspuntua emon gura izan deusagu. Arratian sorginen kontua asko entzun da. Gure antzezlanaren sorginen inguruan da: torturak eta sufridu zituen gauzak.

Gidoia zeuek prestatu zenuen?

M.I.: Gidoia begiraleak prestatu dau, Ismael Pereirak. Eszenografia be berea da. Lan handia egin dau.

Joana Esparza: jantza bat be badago hiru sorginek egiten dabena eta hor ibili ginan ikasten azken egunean jo ta ke, hiru orduz...

Oier Ladislao: azkenean oso ondo urten zan.

M.I.: Tituluaren esaten dan moduan Petralanda inguruan dago giroa antzezlanaren. Petralanda Dimako auzo baten dago. Titulu hori ipini geuntsan sorginak han egoten ziralako. Baina Arratian edo Euskal Herriko beste leku baten gertatu eitekean.

Zer suposatzen dau sariak? Espetro zenuen?

O.L.: Aurten behar dezente bat egin dogu eta igarri egin da. Nik

uste dot behar handia egin dogula. Eta jenteari be gustau jako.

Urte batzuk dira Igorre Zugan Ni proiektuan dagoala. Ze ekarpen egiten deutse holango proiektu batek ikasleai?

M.I.: Beste herri batzuetan be badagola antzerkirako joera ikusten da eta zeure edade antzerki jenteari antzerkia egiten daua. Zugan Ni proiektuan herri diferenteetako antzerkiak eta zelan eboluzionetan dauan ikusten dogu. Gure taldean, hamaika gara, bi aurten hasi dira eta besteok urteetan egon gara. Nik bost urte daroadaz, Oierrek lau...

Zer gustetan jatzue gehien? Aktore lana ala beste lan batzuk?

M.I.: Niri gehien gustetan jatana neure burua beste baten papelean ipintea da. Egoera barrriak eta gauza konkretuak, eguneroko bizitzan egingo ez neukezanak egitea. Beste mundu baten sartu, beste gauza batzuk egin, egundo be egingo ez neukezanak.

O.L.: Neuri be asko gustetan jata interpretetea. Txikitatik gustau jataz holango gauzak. Eta aurten neure lanagaz asebeteta geratu naz, papel inportantea euki dot, inkisidoreare-

na egin dot. Papel antagonista eta gogorra. Inkisidorea persona zorrotza da eta papelean sartu behar zara.

J. E.: Niri gidoirako ideak emoteaz aparte, aktore lana asko gustetan jata, ze urtero diferentea da eta gauza diferenteak egiten dozuz. Aurtengoa asko gustau jata.

M.I.: Beti komedia egiten ohituta gagoz. Aurten edukia aldatu egin gura izan dogu eta drama bat egin. Hasikera baten gaia "sentimentuak adierazotea" zan, eta esan genduan, ba sorginak eta negarra landuko doguz. Gero, gaia "gure herria" izan zan eta bardin-bardin balio izan euskun.

Egon dira drama gehiago?

J.E.: Ez bakarria izan da.

Beste herrietako ikusita, zelan maila topau dozue kalidarean aldetik?

M.I.: Konturatu gara euskera mailan Arratiak puntu inportante bat daukala. Ze badakiguz papela bereizten: hasten bagara bizkaieraz, bizkaieraz segiduten dogu. Beste leku batzuetan antzerkia ona izan arren, euskera maila ez da hain ona. Eta guri

Petralandako

ingurumarie

antzezlanak sorginak

bizi izandako torturak

eta sufrimentua dauka

gai moduan

belarrira min egiten deusku.

Institutuko beste talde batek be hartu dau parte, gazteagoak. Horreentzat antzerkia egiten eben lehenengo urtea izan da?

M.I.: Batzuentzat bai, beste batzuentzat bigarrena.

J.E.: Hirugarren gelditu dira eta nahiko ondo egon da antzerkia.

M.I.: Bai, oso gazteak dira 12 urte ditue, baten batek 13, eta egin eben gerra zibilaren gaineko antzezlan bat. Eta hain jente gaztea ikustea holango gai bat landuten, ba esaten dozu, ze ondo! Gainera, ondo landu eben, eta hirugarren geratu ziran.

Hori be drama bat.

M.I.: Sartu eutsien komedia puntu bat.

Hau beste nonon taularatzeko aukerea eukiko dozue?

J.E.: Bai, seguru asko bagilaren 13an Bilboko Kafe Antzokian egingo dogu goizez. Eta institutukoentzat be egingo dogu beste egunen baten, baina oraindino zehaztu barik dago. Institutukoentzat izan arren, etorri daiteke edonor ikusten.

M.I.: egiteko aukera gehiago emoten badeuskue, be egingo dogu. Gainera aurtengoa gustau jako. Aurten egin dogunaz gustura gelditu gara.

O.L.: oso ondo daukagu landuta bakotzak berea.

M.I.: Hasikeratik danok ados egon ginan gai hau egiteko. Eta gustau jakunez, gidoia egiteko eta eszenografia preparteko beti egin dogu aurrera.

Finalaren balorazioa.

J.E.: nerbioakaz bizi izan genduan, ez genialako zer pasauko zan.

Argi geunkan ez ginala geldituko azkenak, besteen antzezlanak ikusita, ze gurea oso ondo egon zan. Aurten, dana dala, sari banaketea gatzbakoa izan da. Aurreko urteetan esaten eben nok irabazi eban eta honeek berba batzuk esaten zituen, erramua jaso... eta aurten bakarrik irabazlea zein zan esan eta txalo batzuk.

M.I.: gatzbakoa antolatzaileen aldetik, ez taldeen aldetik. Egunean zehar, antzerkiak aparte beste ekintza batzuk egiten dira. Eta astuna izan zan.

O.L.: niretzat, barriz, ederto egon zan.

M.I.: zapatuan eta domekan zazpi antzezlan segiduan. Hori oso astuna egin jakun.

J.E.: gainera zapatuan danak ikusi behar genduzan, puntuau egin behar genduzan eta.

Orduan partehartzaileok puntuetan dozuez lanak?

J.E.: guk baloretan doguz eta gero begiraleak eta Markeliñeko zuzendariak ebazten dabe zein dan irabazlea.

M.I.: Lehenengo urteetan zuzendariak eta Zugan Ni proiektua aurrera daroenak puntuetan eben, baina gero ikusi eben beste antzezleai emon behar jakiela aukerea esateko eurek zelan ikusten dabene, ze nagusitan eta gure edadean diferente ikusten da. Eta hau azkenengo urte bitan egin dabe.

Datorren urtera begira segiduteko asmorik?

J.E. eta O.L.: Bai.

M.I.: nik ezin dot, banoalako institututik. Etorriko naz bisitan, baina.

   LANERAKO PRESTATU ZAITEZ <i>formato para el empleo</i>			HEZKUNTZA ESKAINTZA: <ul style="list-style-type: none"> • Eskola graduatua • Elektrizitatea eta elektroika • Haur hezkuntza • Mekanizatua (goi eta erdi maila) • Goi mailako sarbide proba prestatzeko ikastaroa • Lanbide eta Habetuz-eko ikastaroak
IZENA EMATEKO EPEAK ZABALIK			
	ERDI MAILAKO ZIKLOAK GOI MAILAKO ZIKLOAK	HASIERAKO LANBIDE PRESTAKUNTZARAKO PROGRAMAK (P.C.P.I.)	
Aurrematrikulazioa	MAIATZAREN 27tik EKAINAREN 7ra	EKAINAREN 3tik 21era	
Matrikulazioa	UZTAILAREN 8tik 12ra	UZTAILAREN 1etik 8ra	
ZULAIBARREKO ATEAK ZABALIK DAGOZ. ESKATU HITZORDUA.			www.zulaibar.org Tel.: 94 673 93 00 e-mail: info@zulaibar.org